ALDARRIKAPENAK eta SALAKETAK

-Lanpostuen murrizketa: bajen ordezkapenak atzeratuz, laguntzako irakasleak murriztuz, ikasle gutxi dituzten batxilergo eta zikloak ezabatuz, e.a.
-Soldatak "izoztuta" daude eta 2010ean inposatu ziguten %5aren beherapenaren ondoren gure gaitasun ekonomikoa jeitsi egin da.
-Baja hartzen duten langileei soldata osagarriak kendu nahi dizkiete.
-Borondatezko erretirorako zeuden dirulaguntzak eta errelebo kontratuak kendu nahi dituzte, eta erretirorako adina 67 urtetaraino luzatu nahi dute.
-Ondoko erkidegoetan gertatzen ari dena ikusita aurreikuspen batzuk egin daitezke:

+ordu lektiboen eta bestelako lan orduen handitzea
+lanpostuen murrizketa (bereziki ordezkoentzat)
+geure lanaren kritika hedabideetan

-Burokraziaren handitzea geure lan pedagogikoaren kalterako; kalitate programen eskakizunen, IKT eta bestelako programen zein bilera eta batzordeen ugaritzearen ondorioz.
-Baliabide eta denbora desbideraketa itzela Eskola2000 edota IKT bezelako programekin. Eztabaidatu beharra dago teknología berrien benetako erabilera zenbatekoa den, tresna guztiak benetan erabiltzen diren, horretarako material didaktiko egokiturik dagoen eta horrek benetan ekarpenik egiten dion hezkuntzari.
-Kurrikulumak ez daude benetako egutegi eta ordutegietara egokituak, ezinezkoa gertatzen da programazioak behar bezela betetzea eta metodología zein baliabide berrien erabilera sakontzea.
-Ikaslegoaren eta euskaraz jardun behar duen irakaslego/langilegoaren elebitasuna (bereziki euskaraz jarduteko gaitasuna) bermatu ez denean, orain 3 hizkuntza bat sartu nahi da irizpide pedagogikoak baino irizpide propagandistikoei eta interes personalei lehentasuna emanda.
-EPE edo OPEek ez dute inondik inora irakasle baten gaitasun pedagogikoa, konpromezua, etb bermatzen eta *funtzionarismoa* bultzatzen dute.

Ordezko eta interinoei dagokienez:
-Egonkortasun berme txikienarik gabe lan egiten dute: ez soldata, ez ordutegi, ez lurralde aldetik (gertutasunari dagokionez).
-Antzinatasunik ez soldata jasotzeko orduan.
-Eskubide eta betebeharrei buruzko informazio

Historia libertarioko baliabideak euskaraz
www.hezkuntzakrata.wordpress.com

Lanpostu eta soldaten murrizketarik ez!
Ordezko eta interinoen baldintzak hobetu!
Garbitzaile, zaintzaile, sukaldari eta beste langileenak ere...
Psikologo ta gizarte hezitzaileak hainbeste ordenagailu baino!!

HEZIKETA ASKATZAILE BATEN ALDE !

CGT-LKN .Hezkuntza-Educación
www.cgt-lkn.org/bizkaia/hezkuntza
cgt.lkn.hezkuntza@gmail.com
HEZKUNTZAKO SINDIKATU ANARKISTA

CGTren hezkuntzako manifestua

Gobernu autonomiko gehienek kalitatearen hobekuntza bat suposatzen zuten zenbait alderdien murrizketa gogor bati ekin diote (krisiaren aitzakiaz):-Ikastetxei haien funtzionamendurako emandako dotazio zuzenak, irakaslegoaren formakuntza, serbitzuak eta irakasleentzako zentruak, programa ezberdinak (berrikuntza teknologikoak, ordenagailuak ikasleentzat, gatazken konponbidea, liburuen berziklapena…), liburuentzako eta jantokientzako dirulaguntzak, administrazio eta serbitzuetako langileak, laguntzako irakasleak (haur hezkuntzako teknikariak, gizarte hezitzaileak, psikopedagogoak…), langile guzti hauen ordezkapenak.

Eskola publikoarentzat lan egiten dugunon eskubide eta lan baldintzei dagokienez, gobernu zentralak eta autonomikoek nabarmen okerrera garamatzaten elementuak sartu dituzte:

1-Soldaten murrizketa (%5 eta %7 artekoa) iazko bigarren seihilabetetik (2010eko lehen sehilabetearekin alderatuta soldata eta ordainsari extra guztietan) eta "izozketa". Aurreratutako erretiroa 60 urtekin hartzeko baldintzak zaildu egin dira eta erretiroa hartzeko adina atzeratu nahi dute.

2-Karga lektiboaren handitze ia orokorra: klase ordu gehiago –ordutegi lektibo zabalena zuen OCDEko Estatuan lanean ari ginenean- eta, ondorioz, lan karga handiagoa –prestaketa, zuzenketa, ebaluaketa-

3- Langile kopuruaren murrizketa nabarmena: 12.000-15.000 irakasle eta administratibo inguru sistematik kanporatuak izanen direla edo ez direla kontratatuak izango kalkulatzen da.Masifikazio handiagoa ikasgeletan, langileen kopuruaren murrizketari esker zein legeak zehaztutako ratioak betetzen ez direlako, edota ikasle taldeak osatzeko araudi zorrotzei esker – bereziki bigarren hezkuntzan, batxilergoan, formakuntza zikloetan… Errefortzuen, bikoizketen, arreta indibidualizatuaren, harrera ikasgelen… murrizketa.

4-Baldintza orokorren okertzea langile kopuruaren murrizketaren ondorioz: haien behinbetiko plaza galdu duten funtzionariak; behinbehineko destinoa zuten funtzionariak berriro egoera berean jarraitzera derrigortuak; plaza gutxiago izan dira oposaketetan, eta ondorioz praktiketako funtzionari gutxiago egon dira, eta azkenik, irakasle interinoek eta ordezkoek kalterik handiena jasaten dute lan egiteko aukera arras murriztuta ikusi dutelako, eta lortzekotan inoiz baino baldintza txarragoetan ari dira(denbora gutxiago eta urrunago).

5-Irakasle interinoen prekarietatea sakondu egin da: esleipen telematikoak, ihardunaldi 1/3 ko ordezkapenak, disponibilitate geografiko eta funtzional zabalagoa…

Estatu mailako hezkuntzako web orria: www.fecgt.org

KALITATEZKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA ORAIN !!

EHU-UPVn mobilizatzen hasteko eta borrokatzeko arrazoi ugari daude:

-Matrikulazio tasak asko garestitzen ari dira (batazbeste %5).

-Gobernu zentralak eta autonomikoek ikasle eta ikertzaileentzako bekak eta diru-laguntzak murrizten ari dira, hezkuntzarako aurrekontu nagusiak bezela.

-Boloniako prozesuarekin hezkuntzaren kalitatea ez da batere hobetu. Lehen lizentziaturan eskuratzen ziren ezagutzak, trebakuntza eta agiriak eskuratzeko gaur egun oso garestiak diren masterrak egin behar dira (adibide garbiena CAP delakoa). Eta berrikuntza pedagogikoak irrigarriak dira: kanoi digitalen erabilpena, taldeko lanak, gela aurreko aurkezpenak eta ezer gutxi gehiago.

-Bekarioen eta irakasle lagunen baldintzak negargarriak izaten jarraitzen dute: ikerlari-irakasle nagusiekiko erabateko menpekotasuna, babes gabezia, gehiegizko eskakizunak eta ordutegiak, soldata eta beka lotsagarriak, etab.

-Ikasketak burututako esparruan lana topatzeko aukera eskasak: langabezi tasa langileria aktiboan %25ean kokatzen den bitartean goi mailako ikasketak dituzten pertsonen artean %40raino iristen da.

-Oraindik ez dago bermatuta euskaraz kalitatezko goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera.

-Oraindik beste lurraldeetatik datozen ikasleentzat ez dira beharrezko serbitzu publikoak, behar bezela eta prezio eskuragarrietan, eskeintzen: garraioa, jantokiak, alokairuak, etab.

-Orokorrean unibertsitateko langileen (irakasle, ikertzaile, PAS) lan baldintzak gero eta kaxkarragoak dira : +lan karga gero eta handiagoak izoztuta dirauten soldatekin +gero eta langile gehiago, unibertsitateak kontratatu ordez, departamentuek kontratatzen dituzte, erakundeek sortutako fundazio, patronatu eta konsorzioen bidez, baldintza negargarrietan +gero eta serbitzu gehiago subkontratatzen dira + lanpostu asko ez dira bete: berriro kontratau ez diren interinoak, erretiroak, ordezkapenak (baimen eta ihardunaldi murrizketak), etab.

IKASLE, IRAKASLE eta PAS-ak
BORROKAN BATEGIN DIZUGUN